# ANALOGIAN OINARRITURIKO HIRI-ZABALGUNE PROPOSAMENA

4. PRAKTIKA

4. praktika taldeka izango da, eta aurreko praktikaren herri berdinean (Urola-Kostakoek Zumaian egin dezakete).

Ariketaren abiapuntu gisa **1960. urteko hiria**ren egoera hartuko dugu (geroago egindako poligonoen *garapenkeriaren* alternatiba bilatzearren).

Egin beharrekoa:

1. Zabalgunea egiteko eremua aukeratu eta mugatu.
2. Zabalgune-eredu bat bilatu. Haren tamainak (etxe-irlena eta kaleena) errespetatu beharko dira, baina egituraketa moldatu beharko da (gure hiriarekin jarraitutasuna bilatuz).
3. Plaza bat kokatu eta definitu (analogo bat bila daiteke, proiektuari moldatuz, ala asmatu)
4. 3 ekipamendu kokatu eta definitu: eskola, kultur etxea eta polikiroldegia (benetako eredu bat erabil daiteke, haren tamaina errespetatuz).
5. Eremuaren %25a hartuko duen parke bat kokatu eta definitu (zatitu daiteke, baina gutxienez 30 metroko zirkulu bat inskriba dadila).
6. Ondo definitu beharko dira kale-sarea, etxe-irlen edo eraikinen neurriak, plantan zein altueran.

Hurrengo bi planoak eman behar dira:

| | NOLA EGIN | ZER EGIN |
|---|---|---|
| 1go PLANOA | - Eskala: **Libre**<br>- Tamaina: **A-1**<br>- Formatoak: **CD**an (PDF, 300 d.p.i.) eta **Paperean** | - 1960. urteko kokapen-planoa zabalgunearen eremua mugatuz (5 eta 7 hektarea artekoa)<br>- Aukeratutako eredua aurkeztu eta azaldu zergatik aukeratu den |
| 2. PLANOA | - Eskala: **1:2.000**<br>- Tamaina: **A-1**<br>- Formatoak: **CD**an (PDF, 300 d.p.i.) eta **Paperean** | - Antolakuntzaren oinplanoa<br>- Antolakuntzaren ebaketa adierazgarrienak |

Hurrengo hazkunde-formak erabil daitezke, proiektu analogoak bilatzeko:

| HAZKUNDE-FORMA ANALOGOAK |
|---|
| - XIX. mendeko zabalgune burgesa<br>- XX. mendeko zabalgunea<br>- *Siedlung* alemaniarra<br>- *Hof* vienarra (baita ere *Gemeinbau* deitua) |

EMATE-DATA: Abenduko azken asteko klaseko amaieran (3. ariketarekin batera, beraz, sartu CD berdinean).